



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 3a

14. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako ikurren erabileran herritarren erabaki demokratikoa eta aniztasunarekiko errespetua bermatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (21. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan eskaintza publiko bat dei dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan lanpostuak hornitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (22. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diru-laguntza bat ezar dezan, Obanosko Misterioaren antzeppenaren 50. urteurrena ospatzea ahalbidetuko duena. Osoko Bilkurak onetsia (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kultura Kontseiluari buruzko araudi berri bat egin dezan eta kontseilu horren kideak berritu ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (23. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 2/2014 Foru Lege Dekretua, abenduaren 29koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituena. Osoko Bilkurak baliozkotua (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko urtarrilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, foru lege bat onetsi zuen, ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

Foru Legea, ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili eta egoteko askatasuna arautzen duena

ZIOEN AZALPENAK

I

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobezeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluko 17. zenbakiak gizarte-laguntzaren arloko eskumen osoa ematen dio Nafarroako Foru Komunitateari. Gizarte-laguntzaren esparruan sartzeko beharrezkoak diren ekintza publikoak, gizarteratzeko politika baten oinarriak eta mugigarritasuna murriztua duten eta beste muga batzuk dauzkaten pertsonentzako irisgarritasun baldintzak hobetzeko politika baten oinarriak ezartzekoak.

Nafarroako Foru Komunitateak, dagoeneko, zenbait arau emanak ditu oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzearen arloan, uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legetik hasita (martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legeaz aldatu zen foru lege hori). Arau hori, gaur egun, Irisgarritasun Unibertsalari

eta Ororentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Lege indardunak ordeztu du, zeina egin baitzen Ezgaitasuna duten pertsonen aukeraberdintasuna, diskriminazio-eza eta irisgarritasun unibertsala lortzeko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen printzipioen argitan.

Aipatutako azken foru lege horretako zioen azalpenak dioen bezala, ezgaitasunen bat duten pertsonak talde heterogeneo bat osatzen dute, baina horiek guztiak komunean dute, neurri batean edo bestean, berme osagarriak behar dituztela eskubide guztiak baliatuz bizi ahal izateko edota gainerako herritarren baldintza beretan parte hartu ahal izateko bizitza ekonomiko, sozial eta kulturalen. Eskubideen berdintasun hori ez da erabatekoa oraindik, eta horrek eskatzen du erakundeak gehiago ahalegindu daitezela berdintasun hori lortze aldera, zeren eta, ezgaitasunen bat duen pertsona batek jasan behar izaten dituen desabantailen jatorria pertsona horrek dituen zailtasunetan dagoen arren, desabantaila horiek areagotu egiten baitira eguneroko bizimoduan herritar horiei bizitza ekonomiko, sozial eta kulturalen parte hartzea zailtzen dieten oztopo eta baldintza murriztaileekin, gure bizimoduko gisa guztietako baldintzak ezgaitasunik ez duten pertsonentzat pentsatuta eta diseinatuta baitaude.

II

Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua ezartzen du espainiarrak legearen aurrean berdinak izatearen printzipioa, eta debeku dela inolako diskriminaziorik egitea jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, pentsamoldea edo beste edozein tasun edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta. Era berean, 9.2 artikulua ezartzen du botere publikoei dago kiela inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak

izan daitezten; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere. Azkenik, 49. artikulua botere publikoentzako agindu bat jasotzen du, ezgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeko politika bat egin dezaten, haiei behar duten laguntza espezializatua emate aldera, horren bidez Konstituzioan bertan aitortuta dituzten eskubideak lor ditzaten.

Konstituzio-xedapen horien indarrez, berriki onetsi da, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez, Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina. Arau horrek batean bildu eta berrezarri ditu Ezgaitasuna duten Pertsonen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea, Ezgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna, diskriminazio-eza eta irisgarritasun unibertsala lortzeko abenduaren 2ko 51/2003 Legea eta Ezgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasunaren, diskriminazio-ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren alorreko arau-hausteen eta zigorren araubidea ezartzen duen abenduaren 26ko 49/2007 Legea. Lege horiek guztiak araudiaren esparruan iraultza bat izan ziren ezgaitasuna duten pertsonak bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean guztiz integratzea lortzeko. Testu bategin berriaren bidez, berriz, bete egiten da. Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko itunaren arabera araudia egokitzeko abuztuaren 1eko 26/2001 Legearen azken xedapenetako bigarrenean bildutako agindua, zeren eta guztiz berresten baititu bai eskubide horiek, bai botere publikoek ezgaitasuna duten pertsonak beren eskubideez egiazki balia ahal daitezten bermatzeko daukaten betebeharra ere, Konstituzioaren 9.2 artikuluan xedatutakoaren ildo beretik.

III

Nazioarteko arau-esparruan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, Nazio Batuen 183. Bartzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10ean aldarrikatutakoak, 1. artikuluan ezartzen du gizon-emakume guztiak aske jaiotzen direla eta duintasun eta eskubide berberak dituztela. 2. artikuluan gehitzen du gizaki orori dagozkiola aldarrikapenean bertan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez dela inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste inolako gorabeherengatik. 6. artikuluan ezartzen du gizon-emakume guztiak berdina direla legearen aurrean bereizkeriarik gabe, eta denek dutela legezko eta Adierazpen Uniber-

tsala hausten duen edozein diskriminazioaren aurkako babes bera izateko eskubidea.

Nazio Batuen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 26. artikulua (New Yorken egin zen 1996ko abenduaren 19an, eta Espainiako Estatuak berretsi zuen 1997ko apirilaren 13ko Tresnaren bidez) ezartzen du pertsona guztiak berdina direla legearen aurrean eta eskubide dutela legearen babes bera izateko, inolako diskriminaziorik gabe; eta gehitzen du legezko diskriminazio oro debekatuko duela, eta pertsona guztiei babes bera eta eragingarria bermatuko diela, edozein diskriminazioren aurka, arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala edo gizarte-jatorria, ekonomia-maila, jaiotza edo beste edozein gizarte-ezauzgarri dela bide.

Zentzu berean, Giza Eskubideei eta Oinarrizko Askatasunei buruzko Europako Hitzarmenaren 14. artikuluan –Erroman egin zen 1950eko azaroaren 4an eta Espainiako Estatuan 1979ko urriaren 4tik dago indarrean–, “diskriminazioaren debekua” izenburupean, ezartzen da hitzarmenean aitortutako eskubide eta askatasunen gozamina ziurtatu behar dela, inolako bereizketarik egin gabe, eta, batik bat, sexu, arraza, larru-kolore, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelakoak, jatorri nazional edo sozial, gutxiengo nazional bateko kideetasun, aberastasun, jaiotza edo beste edozein egoeraren ondoriozko bereizketarik egin gabe. Berrikiago, Hitzarmeneko 12. Protokolo Gehigarriko 1. artikulua –Espainiako Estatuan 2008ko ekainaren 1etik dago indarrean–, “diskriminazioaren debekua” izenburu beraren pean, ezartzen du legez ezarritako eskubide ororen baliatzea inongo bereizketarik gabe bermatu beharra dagoela, eta, batik bat, ezin direla bereizketa horretarako arrazoi izan sexua, arraza, larru-kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politiko edo bestelakoak, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional bateko kide izatea, aberastasuna, jaiotza nahiz beste edozein egoera. Eta gehitzen du inongo agintaritzak publikok ezin duela inor diskriminatu; bereziki, diskriminazio hori aipatutako arrazoiengatik justifikatu nahi badu.

Ezgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak –New Yorken egin zen 2006ko abenduaren 13an, Espainiako Estatuak 2007ko martxoaren 30ean sinatu zuen eta 2007ko azaroaren 23ko Tresnaren bidez berretsi zen– 1. artikuluan aldarrikatzen du bere xedea dela ezgaitasuna duten pertsona guztiek oso-osoan eta berdintasun-baldintzetan izatea oinarrizko eskubide eta funtsezko askatasun guztiak, eta pertsona horien berezko duintasuna errespetatu dadila sustatzea. Arau berak ezgaitasuna duten pertsonen

artean sartzen ditu epe luzerako gabezia fisiko, mental nahiz intelektualak edo zentzumenezko gabeziak dituztenak, oztopo desberdinekin topo egitean gabezia horiek eragotzi ahal izanen baitute pertsona horiek gizartean parte hartzea modu osoan eta efektiboan, gainerako pertsonen baldintza berberetan. Konbentzioaren printzipioen barruan, 3. artikulua jasotzen ditu berezko duintasunaren, norberaren autonomiaren eta pertsonen independentziaren errespetua, diskriminazio-eza, aukeren berdintasuna eta irisgarritasuna. 4. artikulua, Konbentzioa sinatzen duten estatuen betebeharrak orokorren artean, ezartzen du ezgaitasuna duten pertsonen giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztietarako eskubide osoa bermatu eta sustatzeko, ezgaitasuna dela-eta inongo diskriminaziorik egin gabe. Horretarako, Konbentzioan bertan aitortutako eskubideak egingarri egiteko neurri egoki guztiak hartuko dira, legegintzakoak, administratiboak nahiz beste izatera batekoak; egoki diren neurri guztiak hartuko dira, legegintzako neurriak barne, indarreko legeak, erregelamenduak, ohiturak eta eginerak aldatu edo indargabetezko, halakoek pertsona ezgaituak diskriminatzen dituztenean; eta egoki diren neurri guztiak hartuko dira inork (pertsona, erakunde edo enpresa pribatua izan) bereizkeriarik egin ez dezan ezgaitasun arrazoiengatik.

Konbentzioak, 5. artikuluan, ezgaitasuna duten pertsona guztien berdintasun eta diskriminazioezaren printzipioak aitortzen ditu, bai eta pertsona horiek legearen babes eragingarria izateko eskubidea ere, edozein arrazoitan oinarritutako diskriminazioaren aurka.

Ezgaitasuna duten pertsonen irisgarritasunari dagokionez, Konbentzioaren 9. artikulua estatu sinatzaileak premiatzen ditu behar diren neurriak hartzea ezgaitasuna dutenei ziurtatzeko eskuragarri izatea, gainerako pertsonen baldintza berberetan, ingurune fisikoa, garraioa, informazioa eta komunikazioak, barnean direla informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak, eta jendaurreko edo erabilera publikoko beste zerbitzu eta instalazio batzuk, hiriguneetan nahiz landaguneetan. Neurri horien artean sartu behar da irisgarritasunerako trabak eta oztopoak identifikatu eta kentzea, eta neurriak honakoetan aplikatu beharko dira: eraikinak, bide publikoak, garraiobideak eta kanpoko zein barneko beste instalazio batzuk; esate baterako, eskolak, etxebizitzak, instalazio medikoak eta lantokiak, informazioko, komunikazioko eta bestelako zerbitzuak, horren barne direla zerbitzu elektronikoak eta larrialdikoak. Bereziki, xede horietarako hartu beharreko bidezko neurrien artean, Konbentzioak sartzen ditu gizaki edo animalia bidezko laguntza-motak

eta bitartekariak eskaintzera bideratutakoak, gidak, irakurgailuak eta zeinu-hizkuntzaren interprete profesionalak barne, eraikinetara eta jendaurreko beste instalazio batzuetara sartzea errazteko.

Langileen mugikortasuna erregulatzearen bidez, 20. artikulua estatu sinatzaileei exijitzen die neurri eragingarriak hartzeko, ziurtatze aldera pertsona ezgaituek mugigarritasun pertsonala izatea, ahalik independentziarik handienarekin; neurri horien artean dago ahalbidetzea ezgaituek lor ditzatela giza edo animalia bidezko laguntza-motak eta bitartekariak, laguntza-teknologiak, gailu teknikoak eta kalitateko mugigarritasunerako laguntzak, baita halakoak arrazoizko kostuan haien esku jarri ere.

IV

Azkenik, Europako araudiaren esparruan, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunak, Strasburgon 2007ko abenduaren 12an eginak, 1. artikuluan aldarrikatzen du giza duintasunerako eta bortxaezintasunerako eskubidea; 3. artikuluan, pertsona guztiek osotasun fisiko eta psikikoa izateko eskubidea; 6. artikuluan, pertsonen askatasunerako eskubidea; 20. artikuluan, pertsona guztiak legearen aurrean berdinak izateko eskubidea; 21. artikuluan, berriz, diskriminazio oro debekatzeko, eta, bereziki, sexua, arraza, larru-kolorea, etnia- edo gizarte-jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo pentsaerak, iritzi politiko edo beste edozein motatakoak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina edo joera soziala direla bide gauzatutakoa. Azkenik, 26. artikuluan, ezgaitasuna duten pertsonen gizartratzerako eskubidea ezartzen du, aitortu eta errespetatu egiten baitu ezgaitasuna duten pertsonen autonomia izateko, gizartean eta lanean integratzeko eta erkidegoaren bitartean parte hartzeko duten eskubidea.

V

Ezgaitasuna duten pertsona guztien oinarrizko eskubideen arloan dauden nazioarteko, Europako eta Konstituzioko arauen ikuspegia deskribatuta, komeni da geratzea Nafarroako Foru Komunitateak orain indarrean duen lege batean; hain zuzen ere, Ikusmeneko disfunczio osoa edo latza izanik gida txakurren laguntza duten pertsonak gune irekietan eta mugatutako beste guneetan sartu, ibili eta egoteko askatasunaren erregimena arautzeari buruzko apirilaren 4ko 7/1995 Foru Legean.

Foru lege hori, izenburutik ondorioztatzen den bezala, zentratuta dago, soilik, ikusmeneko disfunczio

tzioa duten pertsonengan eta erabiltzen dituzten edo erabili ahal dituzten txakurrengan, baina ez du ezertxo ere arautzen ikusmeneko disfuntziorik (edo ezgaitasunik) ez duten baina bestelako ezgaitasunak –fisikoak nahiz zentzumenetakoak– edo nahaste endokrinoak edo beste edozein gaixotasun izan eta laguntza-txakurren laguntzaren beharra daukaten edo izan dezaketen edo laguntza hori komeni dakiekeen pertsonen buruz.

Egoera halako punturainokoa da non, berdintasunaren funtsezko printzipioaren ikuspegitik, diskriminatzailetzat jo daitekeen ezgaitasun jakin bat duten pertsonen (kasu honetan, ikusmeneko ezgaitasuna) Nafarroako araubide juridiko berekia izan dezatela haien eskubideak arautu eta bermatzeko, eta bestelako ezgaitasun edo gaixotasunak dituzten beste pertsona batzuek (esate baterako, eta exhaustiboak izateko asmorik gabe, mugikortasun nulua edo murriztua dutenak, entzumeneko ezgaitasuna dutenak, autismoaren esparruko nahasteak, diabetesa bezalako nahaste endokrinoak, epilepsia eta abar dutenak), ordea, beren eskubideak arautu eta babesteko horrelako araubide juridikorik ez izatea.

Beren horretan, gogoeta horiek berekin dakarte Nafarroan lege bat egin behar izatea laguntza-txakurren edo gaixotasun batzuetako krisiaren alerta ematen espezializatutako txakurren laguntzaren beharra izan dezaketen pertsona horien eskubideak arautzeko eta babesteko, bere garaian ikusmeneko ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak eta gida txakurren (tradizionalki itsu-txakur deitu direnak) erabilera arautu zituzten beste autonomia erkidego batzuetan –Nafarroan ere bai– egin den bezala; izan ere, berriki, ezgaitasuna duten pertsonen esparru mugatu hori gaintu da, eta laguntza-txakurrak eramaten dituzten pertsona ezgaituen irisgarritasunari buruzko eskubideak arautzera jo da.

VI

Gaur egun, egiaztatuta dago laguntza-txakurrek nolako gaitasunak dauzkaten pertsonen autonomia errazteko, ikusmeneko ezgaitasuna dutenen kasuan ez ezik, bestelako ezgaitasuna dutenen kasuan ere. Izan ere, haientzat baliagarri gerta daiteke ezgaitasuna duten pertsonak laguntzeko, gidatzeko eta babesteko behar diren trebetasunak dauzkan txakur bat edukitzea, beren autonomia errazteko eta eguneroko bizitzan laguntza emateko, horrela pertsona horiek topatzen dituzten oztopoak gaintuzten lagunduz.

VII

Hori guztia dela eta, pertsonen berdintasunaren oinarritzko printzipioari dagokionez, esan deza-kegu Nafarroako araudiak, gaur egun, ez duela printzipio hori betetzen, ez ezgaitasuna duten pertsonen halakorik ez dutenen aldean dituzten eskubideei dagokionez, ez eta ikusmenekoak ez diren ezgaitasunak dituztenen aldean dituzten eskubideei dagokionez ere; hau da, ezgaitasuna izan eta laguntza-txakurren beharra duten edo izan dezaketen pertsonen esparru zabalari erreparatuta. Horrenbestez, ikusmeneko ezgaitasuna duten pertsonen eskubide eta bermeei buruzko apirilaren 4ko 7/1995 Foru Legeak hasieran egindako zedarritzea gaintu eta esparru pertsonal, laguntzako eta sozial mugatu horretaz harago iragan behar da, hura zabalduz, bidezkoa den bezala, edozein motatako ezgaitasun edo gaixotasuna duten pertsona guztiei, baldin eta ezgaitasun edo gaixotasun horrek bizi- eta laguntza-baldintzak eta baldintza mediko edo/eta pertsonalak –eta, horrekin batera, berdintasun-baldintzak– hobetzen lagunduko dieten edo laguntzen ahalko dieten laguntza-txakurrak erabiltzea beharrezko, komenigarri edo besterik gabe posible gertatzea eragin badezake.

VIII

Nafarroan araudiaren aldetik dagoen egoera deskribatu berriak talka egiten du aipatutako berdintasun-printzipioarekin, baina ez soilik ikuspuntu teoriko hutsetik, baizik eta ikuspuntu praktikotik ere bai; Nafarroan, izan ere, existitzen baitira jada, gida txakurrak erabiltzen dituzten ikusmeneko ezgaituekin batera, laguntza-txakurrak erabiltzen dituzten eta etorkizunean halakoak erabiltzen ahalko dituzten beste pertsona batzuk.

IX

Aipatutako inguruabar eta errealtate guztiak direla eta, beharrezkoa eta premiazkoa da Nafarroako Parlamentuak gaiari hel diezaion, eta beste foru lege bat landu, eztabaidatu eta onetsi dezan, apirilaren 4ko 7/1995 Foru Lege indarduna, bidezkoa den bezala, gaintuzteko (baita hura indargabetuz ere) eta, beren ezgaitasun edo gaixotasunak tarteko, laguntza-txakurrak (zentzurik zabalenean) erabiltzen dituzten pertsonen eskubide, berme eta betebeharrak guztiak arautzeko; izan ere, halako txakurrak erabiltzeak pertsona horien bizi- eta osasun-baldintzak hobetzen lagun dezake eta ezgaitasunaren tratamenduan hobekuntza ekar dezake, eta haiei esker toki publiko eta pribatu guztietarako, garraiobide eta abarretarako sarbidea izan dezakete ezgaitasunik ez duten pertsonen baldin-

tza beretan, eta horrekin, bizitzeko eta pertsona gisa eta familiaren esparruan beren burua garatzeko funtsezko baldintzak hobetu ditzakete.

X

Foru lege honek lau titulu dauzka, eduki bereizi baina elkarrekin lotutakoak dituztenak, eta titulu horien izendatzaile komuna, berriz, beren eguneroko bizitzako ohiko lanak hobeki egiteko laguntza-txakurrak erabil ditzaketen pertsona ezgaituen zerrendaren definizioa eta zehaztapena da.

I. tituluak foru legearen alderdi orokorrak arautzen ditu: foru legearen xedea eta esparrua, legearen edukia eta norainokoa ulertzeko behar diren definizioak, eta foru legearen aplikazio-esparru guztian laguntza-txakurren izaera egiaztatze eta zehapen-ahalmenaz baliatzeko gizarte zerbitzuen arloko organo eskudunen definizioa; hori guztia, halere, ez da eragozpen izan foru legearekin bat datozen esparru sektorialetan Nafarroako Gobernu departamentuek dauzkaten eskumenetarako.

II. tituluak, nagusiki I. kapituluak, laguntza-txakurrak daramatzaten pertsona ezgaituen sarbiderako, joan-etorrietarako eta egoteko eskubideak zedarritu eta zehazten dira, behar diren xehetasunak emanez toki publikoei eta erabilera publikoa duten toki pribatuei buruz, non eskubide horretaz baliatzeak ahal den osatuena izan beharko duen, arrazoizko muga bakar batzuekin; honakoak, hain zuzen ere: hirugarrenen eskubideak errespetatzea, bai eta animalien presentzia egokitzeak jotzen ez den tokiak ere, laguntza-txakurren erabilitzaileen, jabeen, trebatzaileen eta sozializazio-agenteen betebeharrak ere ezartzea, eta, azkenik, laguntza-txakurren erabileratik eratorritako erantzukizunak zedarritzea.

Foru legeko III. tituluak, I. kapituluak, honakoak jasotzen ditu: laguntza-txakurren sailkapena, txakur horiek erosi eta haien izaera aitortzeari buruzko araupetzea, izaera hori etetea edo are galtzea ere, txakur horien egiaztatzea eta identifikazioa eta laguntza-txakurrei exijitzekoak zaizkien baldintza higieniko eta sanitarioak. III. kapituluak, erabilitzaileen eta laguntza-txakurren arteko Lotura Unitateen Erregistroaren sorrera eta edukia arautzen dira; II. kapituluak, berriz, laguntza-txakurrentzako gune zoologikoen eta trebakuntza zentroen instalazioa eta funtzionamendua baimentzeko baldintzak arautze aldera, arau-bikoiztasunik gerta ez dadin, jarduera sailkatuen eta ingurumen-baimenen arloan indarra duen araudian ezarritako baldintzetara jotzen da, bai eta Nafarroan gune zoologikoen baimen, sailkapen, erregistro eta kontrol zoosanitarioaren arloko arau indardunetara ere.

Azkenik, foru legeko IV. tituluko I. kapituluak, zehapen-araubidea ezartzen da, eta honakoak definitzen eta sailkatzen dira: arau-hauste eta zehapenak, subjektu erantzuleak, zehapenetarako irizpide- eta mailaketa-inguruabarrak eta arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa. Arau-haustetza jotzen diren egitateen erantzukizun zibil konkurrentea salbuesten da beti. II. kapituluak, zehapen-prozedura arautzen da, erreferentzia berezia eginez zehapenetarako prozedura administratibo orokorrari; salbuesita, betiere, ingurumen-baimenen, animalien osasunaren eta gune zoologikoen baimenaren arloetan eskumenak dituzten Nafarroako Gobernu departamentuen zehapen-prozedurako esku-hartzea –aginduzkoa baina ez loteslea–, bai eta jarduera sailkatuen arloan eskumenak dituzten toki entitateena ere.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru legearen xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru lege honen xedek ondoko hauek dira:

a) Ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoek ukitutako pertsonen aukera berdintasuna bermatzea, barne harturik ikusmenaren eta entzumenaren ezgaitasunen bat edo ezgaitasun fisikoren bat dutenak edo autismoaren esparruko nahasteak, diabetesa, epilepsia edo azken xedapenetako bigarrenen xedatuaren arabera aitortutako gaixotasunak dituztenak.

b) Bermatzea a) letran aipatutako pertsonak toki publikoetan edo erabilera publikoko tokietan libreki sartzeko, ibiltzeko eta egoteko eskubideak baliatzen ahal direla, eskubide hori guztiz gauzatzeko bideratzen dien laguntza-txakur batekin doazenean.

c) Laguntza-txakurra zer den definitzea.

d) Laguntza-txakurren erabilitzaileen eskubideak eta betebeharrak ezartzea.

2. Foru lege honen aplikazioak Nafarroako Foru Komunitate osoa izanen du lurralde-eremu.

3. Foru lege honetan ezarritakoa, edonola ere, nagusitu egiten zaio animaliak sartzeko eskubideari edo debekuari buruzko agindu berezi edo zilegi orori, bai lokal edo higiezin publikoei dagokienez, bai pribatuak izanik jendearentzako irekita daudenei dagokienez ere, foru lege honetako 2.g) eta 12. artikuluetan ezarritakoari jarraiki.

4. Foru lege honetan biltzen diren eskubide eta ahalmenak ezgaitasun fisikoek, psikikoek edo zentzumenezkoek jotako pertsonari begira ezarriak daudela ulertuko da.

2. artikulua. Definizioak.

Foru lege honetan xedatutakoari dagokionez, honako definizioak hartuko dira aintzat:

a) Laguntza-txakurren trebatzailea: behar den lanbide kualifikazioa eduki eta laguntza-txakur bat hezten eta trebatzen duena erabiltzaileari zerbitzu egokia eskaini ahal izateko bete beharko dituen egitekoak bete ditzan.

b) Sozializazio-agentea: trebakuntza zentroarekin lankidetzan diharduen pertsona, txakurkumea eta etorkizuneko laguntza-txakurra hezteko eta sozializatzeko prozesuan.

c) Laguntza-txakurraren lagapenerako kontratua: txakurraren jabearen eta erabiltzailearen artean sinatutako kontratua, lotura-unitatea formalizatzea.

d) Laguntza-txakurra identifikatzeko erakusgarria: txakur bat laguntza-txakur gisa ofizialki egiaztatzen duen seinalea, foru lege honek xedatzen duenaren arabera. Seinale hori bakarria izanen da laguntza-txakur mota guztientzat, eta animaliak toki ikusgarri batean eraman beharko du.

e) Laguntza-txakurraren txertoen kartila eta laguntza-txakurraren ziurtagiri sanitario ofiziala:

Laguntza-txakurraren txertoen kartila izanen da Nafarroako Gobernuak txakur guztientzat eredu normalizatuan ezartzen duen agiria, non jasoko baitira txakurrari bere bizitzan zehar jarri zaizkion txertoak eta txakurraren mikrotxip-zenbakiaren bidezko identifikazioa.

Eta laguntza-txakurraren ziurtagiri sanitario ofiziala izanen da lanbidearen jardunean dagoen albatari kolegiatu batek urtebeterako ematen duen agiria, zeinak frogatuko baitu mikrotxip-zenbakiaren bidez identifikatutako txakurrak bete egiten dituela foru lege honetako 16. artikuluan ezarritako baldintza higieniko eta sanitarioak.

f) Espazio publikoak eta erabilera publikokoak: pertsonen multzo jakin batek edo pertsonak, oro har, erabil dezaketen espazioa, dela prezio, kuota edo beste edozein kontraprestazio ordainduta, dela halakorik ordaindu gabe. Espazioa itxia nahiz aire librekoa izan daiteke, eta titularitate publiko-koa nahiz pribatukoa.

Bereziki, kontzeptu honetan sartzen dira foru lege honen 12. artikuluan aipatutako guztiak.

g) Laguntza-txakurrentzako gune zoologikoa: laguntza-txakurrak biltzeko eta edukitzeko zentro, instalazio edo establezimendua, 10 txakur baino gehiago hartzeko tokia duena, non laguntza-txakurren hazkuntza, mantentzea eta trebakuntza

egin daitekeen eta animalien babesaren arloan indarra duen legedi sektorialean ezarritakoa betetzen den.

Baldin eta laguntza-txakurrentzako gune zoologikoa laguntza-txakurren trebakuntzarako erabiltzen bada, laguntza-txakurren trebakuntzarako zentrotzat joko da.

h) Etxeko animalientzako pasaporte europarra: Europar Batasuneko kide diren estatuetoako kontrol eta legediak harmonizatzeko agiri normalizatua, non animalien eta haren jabearen datuak eta identifikazioa jasotzen diren, bai eta txakurraren historial sanitarioa ere. Europar barna batetik bestera ibiltzeko balio du. Erabiltzaileak pasaporte hori eduki beharko du. Gaur egun, pasaporte hori araututa dago, besteak beste Animalien eta txakurraren merkaturatze asmorik gabeko joan-etorriak identifikatzeko agiri-ereduei buruzko Batzordearen 2013ko ekainaren 29ko 577/2013 (EB) Exekuzio Erregelamenduan. Erregelamendua, berriz, Etxeko animalien merkaturatze asmorik gabeko joan-etorriari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 12ko 276/2013 (EB) Erregelamendua betetzeko eman zen, azken horrek aurreko 998/2003 (EE) Erregelamendua indarrak gabe utzi baitzuen.

i) Laguntza-txakurra: ikusmeneko eta entzumeneko ezgaitasun edo ezgaitasun fisiko bat duten pertsonari edo autismoaren esparruko nahasteak, diabetesa, epilepsia edo foru lege honen azken xedapenetako bigarreneko 1. idatzatian xedatuaren arabera aitortutako gaitotasunak dituzten pertsonari konpainia egiteko, gidatzeko, laguntzeko, sorosteko eta asistentzia emateko trebatu den txakurra, zeinak bere trebakuntza amaitu baitu aipatutako pertsonari lagun egiteko, gidatzeko eta sorosteko behar diren trebetasunak barneratuta.

Laguntza-txakurrak foru lege honen 5. eta 6. artikuluetan ezarritako moduan aitortu, egiaztatu eta identifikatuko dira.

Behin txakurrari laguntza-txakurra dela aitortuta, bizi den bitartean izango du txakurrak izaera hori, salbu eta izaera horren galera erabakitzen denean, foru lege honen 18. artikuluan jasotako arrazoietatik bat edo beste gertatzeagatik.

j) Laguntza-txakurraren jabea: jarduteko legezko gaitasuna duen pertsona fisiko edo juridikoa, zeinak legez laguntza-txakurra baitauka.

k) Laguntza-txakurraren arduraduna: etxeko animaliek, oro har, eta bereziki laguntza-txakurrek bete behar dituzten baldintza higieniko eta sanitarioak indarreko araudiaren arabera betetzeaz

arduraten den pertsona edo pertsonak. Honakak izanen dira arduradunak:

k,1) Txakurraren jabea, animalia jaiotzen dene-tik hiltzen den arte, laguntza-txakurra erabiltzaile bati lagatzeko kontratu indardunik ez dagoen bitartean.

k,2) Laguntza-txakurraren erabiltzailea, animalia-riaren lagapena legez jasotzen duten unetik hasi eta lagapen horrek irauten duen bitartean. Baldin eta erabiltzailea adingabea bada edo legez ezgaituta bada, haren aita, ama edo adingabe edo ezgaituaren legezko tutoretza duena izanen da txakurraren arduradun-izaera edukiko duena.

l) Lotura-unitatea: erabiltzaileak eta laguntza-txakurrak osatzen duten unitatea, txakurra erabiltzailearena izan nahiz erabiltzaileari lagapenerako kontratu baten bidez lagapenean emandakoa izan.

Lotura-unitate horiek foru lege honen 21. eta 22. artikuluetan araututako erregistroan erregistratuko dira.

m) Erabiltzaileak ofizialki aitortuta eduki behar du ezgaitasuna duen pertsona dela. Hala eta guztiz ere, soilik ohartarazpen edo alerta medikorako txakurren kasuan eta autismoaren esparruko nahasteak dituzten pertsonentzako txakurren kasuan –13. artikuluko d) eta e) letretan aurreikusitakoak–, haien erabiltzaile izaten ahalko da ezgaitasunik ofizialki aitortuta ez daukan pertsona bat, baldin eta laguntzaren beharra sortzen duen gaitasunak legezko izaera horren aitorpena ez badakar. Kasu horietan, erabiltzaileak kasuko gaitasuna duela frogatu beharko du osasun zerbitzu publikoetako dagokion organoak emandako ziurtagiri mediko ofizialaren bitartez.

3. artikulua. Organo eskudunak.

1. Gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuko kontseilariak izendatzen duen organoa edo erakundea arduratuko da laguntza-txakurraren izaeraren aitorpenaz, eteteaz edo galeraz eta identifikaziorako erakusgarri ofiziala emateaz.

2. Gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuari egokitu zaio foru lege honetan tipifikatzen diren arau-hauste administratiboek buruzko zehapen-espeditentak ireki eta ebaztea.

3. Aurreko bi idatz-zatietan gizarte zerbitzuei emandako eskumenez baliatzeak ez ditu inolaz ere eragotziko Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuek ingurumen-baimenen arloan, gunee zoologikoak baimentzearen arloan eta abeltzaintzaren zein animalien osasunaren arloan dauzkaten zehapen-espeditentak, ez eta jardue-

ra sailkatuen arloan tokiko erakundeek dauzkaten zehapen-espeditentak ere.

II. TITULUA

Ezgaitasuna duten pertsonen ingurunera iristeko daukaten eskubidea

I. KAPITULUA

Laguntza-txakurren erabiltzaileen, jabeen, trebatzaileen eta sozializazio-agenteen eskubideak

4. artikulua. Ingurunera iristeko eskubidea.

1. Laguntza-txakurraren erabiltzaileak ingurunera animalia-riaren laguntzarekin iristeko eskubidea dauka, foru lege honetan ezarritako moduan.

2. Onarpen-espeditentaren erabilera foru lege honetan ezarritako arauak mugatuko dute.

3. Ingurunera iristeko eskubideak berarekin dakar erabiltzaileak ahalmena izatea foru lege honen 5. artikuluan aipatzen diren toki, lokal, establezimendu, ostatu, garraiobide eta espazio publiko edo erabilera publikoko guztietara sartu ahal izatea laguntza-txakurrekin batera, gainerako herritarrekiko erabateko berdintasuneko baldintzetan.

4. Ingurunera iristeko eskubideak babesten du 5. artikuluan aipatutako toki, espazio eta garraiobideetan ibiltzea eta egotea, bai eta txakurra erabiltzailearen ondoan etengabe egotea ere, laguntza zuzena eragotz edo zail dezaketean eragozpen edo etenik gabe.

5. Foru lege honetan ezartzen den moduan, laguntza-txakurrak toki, espazio eta garraiobideetan sartu, ibili eta egoteak eta, oro har, hartan aitortutako eskubideez baliatzeak ezin dute eragin edo beraiekin ekarri laguntza-txakurraren erabiltzaileak kontzeptu horrengatik inongo gastu gehigarri ordaindu behar izatea; horretan, salbuespena izanen dira ekonomikoki ebaluagarria den eta erabiltzaileei, oro har, aplikatzekoa zaien berriazko zerbitzu baten kontraprestazioan dauden gastuak.

6. Ingurunera iristeko eskubideaz baliatzeko ezin da baldintza gisa ezarri laguntza-txakurraren erabiltzaileak inongo bermerik jarri behar izatea.

7. Behar bezala frogatutako aparteko egoeretan, non erabiltzailea, daukan gaitasuna edo ezgaitasuna dela eta, aldi baterako ezindua dagoenean ingurunera iristeko daukan eskubidearen erabileran, foru lege honetako 3.1 artikuluan aurreikusitako organo eskudunari eskatzen ahalko dio, zuzenean nahiz bere legezko ordezkarien

bitartez, baimen berezia eman dakion berak izendatutako hirugarren pertsona bati irisgarritasun-eskubide horretaz baliatu ahal dadin. Baimen horiek honako baldintzak betetzen direnean soilik emanen dira:

a) Erabiltzaileak txakurraren sorospena edo laguntza behar izatea aldi baterako ezintasun-egoera hori daukan bitartean, dagoen tokian.

b) Izendatutako pertsonak foru lege honen arabera irisgarritasun-eskubideak bere barruan hartzen duen toki, eremu edo garraioren batera iritsi behar izatea, txakurrak laguntza hori eman ahal izan diezaion erabiltzaileari, dagoen tokian.

Idatz-zati honen babesean ematen diren baimenak beti pertsona jakin baten aldekoak izanen dira, eta pertsona hori izanen da laguntza-txakurrarekin iristeko eskubideaz baliatu ahal izanen den bakarra, foru lege honetan txakurraren erabiltzailearentzat ezarritako betebeharrak eta muga berekin. Pertsona horrek bere iristeko eskubidea frogatu beharko du, baldin eta halakorik eskatzen bazaio; horretarako, emandako baimenaren jatorrizkoa erakutsi beharko du, lotura-unitatea identifikatzen duen txartelarekin batera.

Baimen horiek beti aldi jakin baterako emanen dira; hori, halere, ez da eragozpen izanen haien luzapena erabakitzeke, baldin eta frogatzen bada haiek ematea eragin zuen egoerak eta iristeko beharrak beren horretan jarraitzen dutela.

5. artikulua. Toki, lokal, establezimendu, ostatu, garraiobide eta espazio publikoen edo erabilera publikoaren zehaztapena.

Foru lege honen 4. artikuluan ezarritakoaren eraginetarako, laguntza-txakurren erabiltzaileek honako espazioetarako sarbidea izanen dute, titulartasun publikokoak ala pribatukoak diren alde batera utzita:

a) Erabilera publikoko toki, lokal eta establezimenduak:

– Une bakoitzean ezar daitekeen hirigintza eta bide legeriaren arabera espazio publiko gisa edo erabilera publikoko espazio gisa definitutako guztiak; besteak beste, oinezkoen pasabideak, oinezkoentzako espazioak edo soilik oinezkoek edo oinezkoek eta bestek erabiltzekoak diren espazioak.

– Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuen arloan indarra duen araudian sartutako guztiak.

– Ikuskizun publikoen eta josteta-jardueren arloan Nafarroako Foru Komunitatean indarra duen araudiari (gaur egun indarrean dagoen Ikus-

kizun publikoei eta josteta-jardueri buruzko martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea, eta hura unean-unean ordeztzen duena) lotutako toki, lokal eta instalazio guztiak, horren barne direla kirol instalazio eta establezimenduak, publikoak zein pribatuak.

– Jostetarako, denbora emateko edo aisiarako zentroak.

– Edozein motatako eta titularitatetako zentro ofizialak, horietarako sarbidea jendeari oro har debekatzen ez zaionean.

– Ikastetxeak, akademiak eta maila, gradu, gai, modalitate eta espezialitate orotako ikastegiak, publikoak zein pribatuak.

– Osasun zentroak, laguntza zentroak eta gizarte- eta laguntza-zentroak, horren barne direla zaharren egoitzak, zahar-etxeak eta klubak, tutoretzapeko etxebizitzak, ezgaitasun fisiko edo/eta psikikoak dituzten pertsonen errekuperaziorako eta laguntzarako zentroak eta antzeko establezimenduak, titulartasun publikokoak zein pribatukoak.

Toki horietan, laguntza-txakurren erabiltzaile ezgaituei aplikatzekoak izanen zaizkie jendearentzat, oro har, murriztuta dauden eremuetan aplikatzekoak diren muga berak.

– Erljio- edo kultu-zentroak.

– Zentro kulturalak, museoak, kultur etxeak, liburutegiak, zine aretoak, erakusketa aretoak edo/eta hitzaldietarako aretoak.

– Merkataritza-biltegiak eta -establezimenduak eta saltoki handiak.

– Lonjak, merkatuak, feriak, merkatu-plazak eta antzekoak.

– Profesional liberalen bulego eta lantokiak, tankera bereko zio jakinengatik joan beharrekoak.

– Autobus eta tren geltokietako, aireportuetako eta garraio publikorako ibilgailu arinen geralekuetako erabilera publiko orokorreko eta publikoko espazioak, haien titulartasuna edozein dela ere.

– Txakurrentzako hiri-eremuak, udal eskudunek berariaz jarritakoak.

Eremu horiek sarrera bat eduki behar dute lurraren arrasean, espaloien mailan, edo bestela barandadun aldapatxo batekin, bai eta ezgaituentzako aparkaleku plaza bat ere, eremu horretarako sarbidetik hurbil.

– Aire zabaleko josteta-lekuak; esate baterako, parkeak, lorategiak, hondartzak eta ibai, laku eta urtegietako bainatzeko tokiak; haien ura barne, bai eta erabilera orokor publikoko beste edozein eremu ere.

– Babes bereziko naturguneak, non berariaz debekatuta agoen txakurrekin sartzea; izan ere, debeku hori ezin izanen zaie aplikatu laguntza-txakurrak erabiltzen dituzten pertsoneri.

b) Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legean (edo kasuan bada, hura ordeztzen duena) sartzen diren turismo- eta jatetxe-establezimenduak, kategoria eta mota guztietakoak; esate baterako, hotelak, ostatuak, jatetxeak, aterpetxeak, kanpinak, kanpalekuak, bungalowak, apartamentuak, kanpatzeko tokiak, igerilekuak, bainuetxeak, aisiarako parkeak, parke akuatikoak, jolas-parkeak edo parke tematikoak, zoologikoak eta prezio baten truke pertsoneri gela, egoitza, jatekoak eta edatekoak ematera bideratutako turismo- eta ostalaritza-establezimenduak, edozein dela ere haien izena.

c) Titularitate edo erabilera publikoko jendearentzako garraio bide oro; batez ere, bidaiariak errepidez, taxiz edo trenez eramateko garraio zerbitzuak, hirikoak eta hiriartekoak, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak, edo garraioa Nafarroako lurraldean barna egiten den bitartean.

d) Oro har, erabilera publikoko edo jendeari arreta emateko beste edozein eraikin, toki, lokal edo establezimendu.

Aipatutako eraikin eta instalazioen banaketa edo azpiegiturak ezgaitasuna duten pertsonen mugimendua, laguntza-txakurrekin batera, bideratzen ez duten kasuetan, ahaleginak eginen dira, bidezkoa den kasu guztietan, beste ibilbide bat bilatzeko, non arkitektura-oztopoen arazoa konponduta dagoen.

6. artikulua. Laguntza-txakurren erabiltzaileek lanera iristeko duten eskubidea.

1. Laguntza-txakurraren erabiltzailea ezin da diskriminatu ez lan-hautapeneko prozesuetan, ez bere lanbide-eginkizuna betetzean.

2. Laguntza-txakurraren erabiltzaileak eskubidea du txakurra lanpostuan uneoro bere ondoan edukitzeko.

3. Laguntza-txakurraren erabiltzaileak eskubidea du txakurrarekin batera sartu ahal izateko bere lanbide-eginkizuna betetzen duen enpresako, erakundeko edo administrazioko espazio guztietan, gainerako langileen baldintza beretan eta soilik foru lege honetan ezarritako murriztapenekin.

4. Artikulu honetako aurreko hiru idatz-zatietan aitortutako eskubideak, nolana ere, ulertuko dira Estatuko legedian ezarritako moduan, eta haren kaltetan izan gabe.

7. artikulua. Laguntza-txakurren erabiltzaileak garraio bideetan beren eskubideez baliatzea.

Laguntza-txakurren erabiltzaileek 5. artikuluan aipatutako toki, espazio eta garraio bideak erabiltzeko eskubideaz baliatzerakoan, begiratu behar ko zaie Nafarroako Foru Komunitatean unean unean irisgarritasunaren eta garraio bideetan oztopoak kentzeari buruz indarrean dagoen araudiari ez ezik (gaur egun, martxoaren 15eko 57/1990 Foru Dekretua, garraio bideetan oztopo fisiko eta zentzumenezkoak kentzeko erregelamendua onetsi zuena), honako arauari ere:

a) Laguntza-txakurren erabiltzaileak lehentasuna izanen du ezgaitasuna duten pertsonentzat garraio bide publikoetan edo erabilera publikoetan erreserbatuta dauden espazioak erabiltzeko; espazio horiek korridorearen ondoko eserlekuak edo inguruan eremu libre handiagoa dutenak izaten dira. Txakurra etzanda edo eserita egonen da erabiltzailearen ondoan.

b) Laguntza-txakurraren erabiltzaileak lehentasuna izanen du eserleku edo toki zabalago bat erreserba dakion, inguruan eremu libre handiagoa duena edo korridorearen ondoan dagoena, kasuan kasuko garraio bide motaren arabera.

c) Ibilgailu arinen bidezko hiriko nahiz hiriarteko zerbitzuetan, laguntza-txakurra ahal dela ibilgailuaren atzeko aldean joanen da, txakurrak laguntza ematen dion ezgaituaren oinetan.

Hala eta guztiz ere, laguntza-txakurraren erabiltzaileak nahi badu, aurreko eta eskuineko eserlekua erabiltzen ahalko du, eta txakurra oinetan edukiko du, honako bi kasu hauetan:

– ibilaldi luzeetan.

– laguntza-txakurren bi erabiltzailek elkarrekin bidaiatzen dutenean beren txakurrekin.

d) Taxi etan, aukera ematen da, gehienez ere, laguntza-txakurren bi erabiltzaile batera joateko, eta txakurrak edo txakurrek erabiltzaileen oinetan etzanda joan behariko dute.

e) Gainerako garraio bideetan, enpresa titularrak, ibilgailuaren gaitasunaren arabera, aldi berean egon daitezkeen laguntza-txakurren kopurua muga dezake. Nolanahi ere, baimena eman behar ko da aldi berean gutxienez ere bi laguntza-txakur sartzeko, baimendutako zortzi plaza bitarteko garraio bideetan, eta laguntza-txakur bana, berriz, zortzi plaza gora dituzten garraio bideetako lau plaza bakoitzeko.

f) Laguntza-txakurraren erabiltzaileak beheko ohea erabiltzeko lehentasuna izanen du ohe-zerbitzua duten garraio bideetan. Eskubide horretaz

baliatu ahal izateko, txartelaren erreserba egiteko unean asmo hori jakinarazi beharko dio kasuko garraio-konpainiari.

g) Artikulu honetan araututako kasuetan, txakurra ez da kontatutako plaza baten okupatzaile gisa, foru lege honetan aipatutako garraio-bideetako bakarrean ere.

Horrenbestez, laguntza-txakurraren erabiltzaileak ez du izanen zertan inongo txartel edo gastu gehigarririk ordaindu laguntza-txakurrekin joateagatik, garraio-bide publiko eta pribatuak erabiltzen dituen bitartean.

8. artikulua. Laguntza-txakurren erabiltzaileek erabilera kolektiboko toki eta espazio pribatueta sartzeari.

1. Ulertuko da foru lege honetan ingurunera iristea dela-eta aitortutako eskubidea zabalitzen dela titulartasun pribatukoak izan baina erabilera kolektibokoak diren toki, espazio eta instalazioetara ere, zeinetara laguntza-txakurraren erabiltzaileak sarbidea baitu jabe, errentari edo bazkidea izateagatik edo zeinetan parte hartzen baitu kasuan kasuko espazioa erabiltzeko gaitasuna ematen dion beste edozein tituluren bitartez.

Nolanahi ere, honakoak geratuko dira iristeko eskubide horren barruan:

a) Jabetza horizontaleko, jabe-kidetasuneko edo txandakako aprobetxamenduen araubidean dauden eraikin, finka edo urbanizazioetako eremu eta instalazio komunak, bai eta ostatu turistikorako diren higiezinak ere.

b) Klub, josteta-elkarte eta kirol-, kultura-, turismo-, aisia- eta aisialdi-jardueren eta antzekoen titularrak den edozein entitate, bazkideek, elkarte-kideek edo kideek erabiltzeko eta gozatzeko zabalik daudenak.

c) Titulartasun pribatuko espazioak, non kultura-, hezkuntza-, aisia- eta aisialdi-jarduerak edo antzekoak garatzen diren, entitate pribatuek antolatutakoak, haietan parte hartzea publikoarentzat, oro har, edo pertsonen kolektibo jakin batentzat zabalik dagoenean.

2. Laguntza-txakurraren erabiltzailea espazio mota horietara sartzeko baldintza orokorrak espazio horien erabilerari buruzko estatutu, erregelamendu eta arauetan erregulatuko dira, eta ez da aplikatuko inongo debeku edo murriztapenik animaliekin sartzeari buruz; nolanahi ere, kasuan kasuko espazioaren erabilera bermatu beharko da, gainerako erabiltzaileekiko berdintasun baldintzetan.

3. Iriste-eskubideaz baliatzeko, foru lege honen 6. 7. eta 9. artikuluetan bildutako arauak aplikatuko dira.

9. artikulua. Laguntza-txakurren erabiltzaileek ingurunera iristeko daukaten eskubidearen mugak.

1. Erabiltzailea ezin izanen da ingurunera iristea dela-eta foru lege honetan aitortutako eskubideaz baliatu honako inguruabarretatik bat gertatzen denean:

a) Laguntza-txakurrak gaixotasun-sintoma argiak dauzka, banaka zein multzoka azaltzen dituen honakoen bidez: sukarrak, alopezia ez-normalak, diarrea gisako obramenduak, sekrezio ez-normalak, larruko bizkarroien zantzuak edo daukaten tamaina edo itxura dela-eta pertsonentzat ustezko arrisku bat izan daitezkeen zauri irekiak.

b) Laguntza-txakurrak higieze ezaren zantzu argiak dauzka.

c) Berehalako arrisku larriko egoera bat dago laguntza-txakurraren erabiltzailearen nahiz hirugarrenen edo txakurraren beraren osotasun fisikorako.

d) Laguntza-txakurren izaera eteteko prozeduraren hasiera, 17. artikuluan xedatua, prozedura hori izapidetzeko eskumena duen organoak hori xedatzen duenean eta izapidetzeak irauten duen bitartean.

2. Laguntza-txakurren erabiltzaileek ingurunera iristeko eskubidea ukatzea, 1. idatz-zatian jasotako inguruabarretakoren batean oinarrituta dagoenean, nolanahi ere, edo agintari eskudunak, edo kasu eta une bakoitzean erabiltzen ari den lokal, zerbitzu, establezimendu, instalazio edo espazioko arduradunak gauzatu beharko dute. Erabiltzaileari adieraziko diote zein den txakurrekin sartzeari buruzko ukoa justifikatzen duen arrazoiak, eta, erabiltzaileak halakorik eskatzen baldin badu, idatziz jaso beharko du arrazoi hori.

3. Laguntza-txakurren erabiltzaileen ingurunera iristeko eskubidea debekatuta dago honako espazio hauetan:

a) Elikagaiak manipulatzeko eremuak eta jatetxe, taberna, kafetegi eta jatetxeen inguruko beste toki batzuk.

b) Ebakuntza-gelak eta larrialdi-zerbitzuetako zainketak eta tratamenduak egiten diren tokiak; zainketa intentsiboetako eremuak edo, daukan eginkizuna dela eta, baldintza higieniko bereziak eskatzen dituen beste edozein eremu.

c) Igerilekuetako eta parke akuatikoetako ura.

10. artikulua. Laguntza-txakurren trebatzaileen eta sozializazio-agenteen ingurunera iristeko eskubidea.

1. Ofizialki baimendutako zentroetako trebatzaileek eta sozializazio-agenteez ingurunera iristea dela-eta legeak laguntza-txakurren erabiltzaileei aitortzen dizkien eskubide berak izanen dituzte, laguntza-txakurrekin batera doazenean animaliak sozializatzeko, trebatze, prestatze, amaierako egokitze eta berrezte faseetan.

2. Trebatzaile eta sozializazio-agenteez uneoro beren izaera egiaztatu beharko dute, trebakuntza zentroak horretarako propio emandako dokumentazioaren bitartez.

3. Beste autonomia erkidego edo herrialde batetik datozen laguntza-txakurren trebatzaile eta sozializazio-agenteen sarbidea dela-eta 1. idatzatiaz ezarritako eskubide bera izanen dute, baldin eta baldintza hori frogatzen badute jatorrizko zentro edo erakundeak emandako egiaztatgiriaren bitartez.

II. KAPITULUA

Laguntza-txakurren erabiltzaileen, jabeen, trebatzaileen eta sozializazio-agenteen betebeharrak, eta laguntza-txakurren erabileratik eratorritako erantzukizunak

11. artikulua. Laguntza-txakurren erabiltzaileen, jabeen, trebatzaileen eta sozializazio-agenteen betebeharrak.

1. Laguntza-txakurren erabiltzaileek honako betebeharrak izanen dituzte:

a) Animalien babesaren arloko indarreko legeak ezarritako baldintza higieniko-sanitarioen, animalien ongi-izatearen eta segurtasunaren baldintzei eustea, bai eta foru lege honetako 17. artikuluan ezarritakoei ere.

b) Erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat edukitzea, gizarte zerbitzuen arloko erakunde eskudunak 3. artikuluan ezarritakoaren arabera arauz xedatutako erantzukizun zibilaren estaldura-mugarekin.

c) Txakurrak toki ikusgarri batean eramatea bere identifikaziorako erakusgarria.

d) Txakurrak arnes edo lepoko bat eramatea, uhal baten bitartez lotuta eramateko.

e) Txakurra ondoan edukitzea, kasuan bakoitzean bidezkoa den loturarekin, 5. artikuluan aipatzen diren toki, establezimendu, lojamendu eta garraiobideetan.

f) Animalia zaintzeko eta tratatzeko baldintzak betetzea, bai eta txakurraren jabeak lagapen-kontratuan zehazten dituenak ere.

g) Laguntza-txakurra erabiltzea soilik trebakuntzak berezkoak dituen eginkizunak betetzeko.

h) Berarekin eramatea eta erakustea, baimendutako pertsonak eskatzen dutenean, laguntza-txakurraren dokumentazio sanitarioa, zeina uneoro eguneraturik egonen baita, eta, zehazki, etxeko animalientzako Europako pasaportea edo agiri sanitario ofiziala, bai eta laguntza-txakurraren izaerari buruzko egiaztatgiri ere.

i) Bide eta erabilerak publikoko tokien higie-ne eta segurtasun-arauak bete eta errespetatzea, ezgaitasunak horretarako bidea ematen dion neurrian.

j) Laguntza-txakurrari berari buruzko errespetu, defentsa eta babes printzipioak bete eta betearaztea. Bereziki, laguntza-txakurraren ongizate maila egokiaren bermea sartzen da. Horretarako, izan ere, txakurrari bizi kalitate ona emanen dioten tratu eta erabilpen-arau eta -betekizunak eta arau eta betekizun etologikoak bete beharko dira, berariaz errespetatuz txakurraren atsedenerako eta ariketa fisikorako aldiak, bai eta txakurrari tratu ona emateko printzipioak ere. Ezin izanen dira gertatu foru lege honen 26.3.f) artikuluan laguntza-txakurrentzako tratu txar gisa jasotzen diren jarduerak.

k) Animalia desagerpena berehala jakinaraztea kasuan kasuko tokiko polizia edo desagerpena gertatu den udalerrian eskumenak dituen beste edozein polizia-kidegori.

2. Laguntza-txakurraren jabeak, trebatzen dituen txakurrak direla-eta, 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan zehazten diren betebeharrak izanen ditu. Laguntza-txakurraren erabiltzailearen aseguru polizaren estaldura oraindik ere operatiboa baldin bada, ez da besterik izenpetu beharko.

Laguntza-txakurraren jabeak egokituko zaio, halaber, foru lege honen 17.1.a) artikuluan aipatzen den esterilizatzea, txakurra erabiltzaileari laga baino lehen.

3. Laguntza-txakurren trebakuntza zentroetako trebatzaileak eta sozializazio-agenteez izanen dira 1. idatz-zatiko e), f), i) eta j) letretan zehaztutako betebeharrak betetzeko arduradunak, trebakuntza zentroaren jabetzako txakurrak direla eta, horiek trebakuntza eta sozializazio fasean dauden bitartean.

12. artikulua. Erabiltzaileen erantzukizuna.

1. Laguntza-txakurraren erabiltzailea da txakur horrek pertsonengan, beste animalia batzuegan, ondasunengan, bideetan, espazio publikoetan eta,

oro har, ingurune naturalean eragiten dituen kalteen, galeren eta enbarazuen erantzulea, aplikatzekoa den legedia zibilaren arabera.

2. Laguntza-txakurraren erantzukizun zibileko aseguru polizak, 18.1.b) artikuluan zehaztutakoak, 1. idatz-zatian aipatutako arriskuak estali beharko ditu nahitaez, eta beti indarrean egon beharko du.

III. TITULUA

Laguntza-txakurrak, laguntza-txakurren zentro zoologikoak eta laguntza-txakurren trebakuntza zentroak

I. KAPITULUA

Laguntza-txakurrak

13. artikulua. Laguntza-txakurren sailkapena.

Laguntza-txakurrak, beren jarduera ezgaituaren ingurune pribatuan zein kanpoko ingurunean garatzen dutenak, honako moten arabera sailkatzzen dira:

a) Gida txakurra: ikusmeneko ezgaitasuna duten edo gor-itsuak diren pertsonen lagun egiteko eta haiek gidatu eta laguntzeko trebatutako txakurra.

b) Zerbitzu txakurra: ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonen beren eguneroko jardueretan laguntza emateko trebatutako txakurra.

c) Soinuak adierazteko txakurra: entzumenerako ezgaitasuna duten pertsonen soinuei buruz ohartarazteko eta soinu horien jatorria aditzera emateko trebatutako txakurra.

d) Ohartarazpen txakurra: epilepsia, diabetesa edo foru lege honen azken xedapenetako bigarren xedatuaren arabera aitortutako gaixotasunen bat duten pertsonen alerta mediko bat emateko trebatutako txakurra.

e) Autismoaren esparruko nahasteak dituzten pertsonentzako txakurra: autismoaren esparruko nahasteak dituen pertsona baten osotasun fisikoaz arduratzeko, hura gidatzeko eta gerta litezkeen larrialdi egoerak kontrolatzeko trebatutako txakurra.

14. artikulua. Laguntza-txakurraren izaera eskuratu eta aitortzea.

1. Txakurraren izaera eskuratuko da 3. artikuluan arabera eskuduna den organoak edo erakundeak emandako egiaztatze bidez. Organo edo erakunde horrek laguntza-txakurraren izaera aitortzeko ebazpen administratiboa emanen du, eta ebazpen hori aitortutako izaeraren egiaztatzeko gisa balioko du.

Izaera hori aitortzeko, egiaztatu beharko dira foru lege honetako 2. artikuluko j) letran laguntza-txakurrak direla-eta ematen den definizioan ageri diren inguruabarrak, eta, bereziki, txakurraren trebetasunak lagungarri direla erabiltzailearen ezgaitasunaren eraginak arintzeko edo gutxitzeko.

2. Laguntza-txakurraren izaera egiaztatze prozedura hasiko da laguntza-txakurraren jabeek edo erabiltzaileek eskatuta. Horretarako, frogatu beharko dute txakurrak honako baldintzak betezen dituela:

a) Lotura-unitatea osatu beharreko erabiltzailearen ezgaitasun edo gaixotasunerako berriazkoak eta egokiak diren xedeetarako trebatua izatea.

b) Amaierako erabiltzaile baten laguntza-txakur gisa zerbitzua emateko xedea izatea, harekin lotura-unitate bat sortze aldera.

c) Lotura-unitatea osatu behar duen pertsonari kontratu bidez lagata izateko 16. artikuluan zehazten diren baldintza higienikoak eta sanitarioak betetzea.

d) Identifikazio elektronikoa edukitzea eta hura foru lege honek indarra hartzen duenean indarrean dauden ISO 11.784 eta ISO11.785 arauen arabera –edo une bakoitzean indarra dutenen arabera– ezarri eta normalizatutako mikrotxip batean eramatea.

e) Etxeko animalientzako pasaporte europarra edo agiri sanitario ofiziala edukitzea.

3. Potentzialki arriskutsuak diren arrazetako txakurrek, esparru horri buruzko arauaren arabera (gaur egun, abenduaren 23ko 50/1999 Legea, Potentzialki Arriskutsuak diren Animaliak Edukitzeari buruzkoa, eta hura garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua), ezin dute laguntza-txakurraren izaera lortu.

15. artikulua. Laguntza-txakurren egiaztatzea eta identifikazioa.

1. Laguntza-txakur bati egiaztatzeko emateak honakoak dakartza:

a) Lotura-unitatea Lotura Unitateen Erregistroan inskribatzea.

b) Identifikazio txartel eta erakusgarri ofizialak egitea eta ematea, 2. idatz-zatian ezarritako moduan.

2. Laguntza-txakurraren izaera, txakurrari txakur espezieko animalia eta etxeko animalia den aldetik dagozkion identifikazioak kenduta, honako agirien bidez egiaztatzen da:

a) Lotura-unitatea identifikatzeko txartela, 3.1 artikulua zehaztutako organo eskudunak emana. Erabiltzaileak txartel hori aurkeztu beharko du hura eskatzeko baimenduta dauden pertsonen eskatuta, 20.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Identifikaziorako erakusgarri bat, izaera ofiziala duena. Gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunak zehaztu beharko du, eta txakurrak toki ikusgarri batean eraman beharko du. Nolanahi ere erabiltzailearen eta txakurraren identifikazio datuak edukiko ditu.

3. Erabiltzaileari laguntza-txakurraren izaerari buruzko egiaztagiria eskatzen ahalko diote soilik agintari eskudunak edo kasu eta une bakoitzean erabiltzen ari den zerbitzu edo instalazioko ardurdunak. Inolaz ere ezin izanen zaio dokumentazio hori modu arbitrario edo arrazoitu gabean eskatu, ez eta foru lege honetan ezarritakoez besteko baldintzarik edo mugarik ezarri ere.

4. Nafarroako Foru Komunitateko egoiliarak ez diren laguntza-txakurren erabiltzaileen aldi baterako egonaldien kasuan, baliagarria izanen da erabiltzailearen jatorriko Administrazio Publikoak izaera horri buruz egindako aitortpena eta emandako erakusgarria.

16. artikulua. Laguntza-txakurren baldintza higieniko eta sanitarioak.

1. Honakoak dira laguntza-txakurrak bete behar dituen baldintza higieniko eta sanitarioak, ezertan kendu gabe txakur espezieko animalia eta etxeko animalia gisa bete behar dituenak:

a) Esterilizatuta egotea, maila hormonalen aldaketen eraginak saihesteko.

b) Pertsoneri kutsa dakiekeen gaixotasunik ez izatea, halakotzat ulertuta une bakoitzean indarrean dagoen antroponozoonosi-taulan ageri direnak.

c) Txertoak hartuta egotea, kasu bakoitzean Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoa den aldizkakotasunarekin, honako gaixotasunen aurka:

- Amorrua.
- Bromoa, txakurren parbobirosia eta txakurren hepatitis.
- Leptospirosia.
- Osasun agintariak unean uneko egoera epidemiologikoaren arabera ezartzen duten beste edozein.

d) Urtero leishmaniosiari buruzko kontrol bat pasatzea, bai eta agintari sanitarioek unean uneko egoera epidemiologikoaren arabera ezartzen duten beste edozein gaixotasunari buruzkoak ere.

e) Agintari sanitario eskudunek unean uneko egoera epidemiologikoaren arabera ezartzen dituzten nahitaezko kontrolak pasatzea.

f) Barrutik eta kanpotik bizkarroiak kenduta egotea, erregelamendu bidez ezartzen den aldizkakotasunarekin.

g) Baldintza higieniko onak edukitzea, eta haien bidez itxura osasungarri eta garbia edukitzea.

2. Artikulu honetan ezarritako guztia betetzen dela egiaztatzeko, urtero txakurrari azterketa sanitarioa egin beharko dio lanbidean jarduteko elkar-goko kidea den albitari batek, eta horri buruzko bidezko egiaztagiria emanen du, behar diren eraginetarako.

3. Artikulu honetan aipatzen diren albitari-jarduketak, bai eta laguntza-txakurraren tratamendu eta historial sanitarioa ere, behar bezala jaso beharko dira etxeko animalientzako pasaporte europarrean eta animalien ardura duen albitariak emandako, sinatutako eta zigilatutako agiri sanitario ofizialean, laguntza-txakurraren izaeraren egiaztagiriari eutsi ahal izateko.

4. Laguntza-txakurren erabiltzaileak, edo adingabeen edo legez ezgaituta dauden kasuan haien legezko tutoretza duena, izanen dira artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzearen ardurdunak.

17. artikulua. Laguntza-txakurraren izaera etetea.

1. 3. artikulua arabera eskuduna den organo edo erakundeak laguntza-txakurraren izaera etetea erabakiko du honako inguruabarretako bat gertatzen denean:

a) Laguntza-txakurrak ez ditu betetzen 16. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako baldintza higieniko-sanitarioak, edo/eta aipatutako 16 artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako urteko egiaztagiria iraungi da, exijitzekoak diren baldintza higieniko-sanitarioei dagokienez.

b) Erabiltzaileak ez du laguntza-txakurraren erantzukizun zibileko aseguru-polizarik; 11.1.b) artikulua bidez ezarri da poliza hori.

c) Erabiltzailearentzat, hirugarren pertsona batentzat edo txakurrarentzat berarentzat arrisku larria edo berehalakoa dago.

d) Kautelazko neurri gisa erabakitzen denean, zehapen-espeditze baten izapidetzean, Animalien Babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legeari edo une bakoitzean hura ordeztzen duen arauari jarraituz.

2. Laguntza-txakurraren izaera etetea erabakiko da kontradikziozko espediente administratiboa ireki eta izapidetu ondoren; espediente horretan, nahitaez, entzunaldia emanen zaio laguntza-txakurraren erabiltzaileari, edo bestela, animalia-aren jabeari, erabiltzaileaz beste pertsona bat baldin bada.

3. Laguntza-txakurraren izaera eteteko prozedura artikuluko honen 1. idatz-zatiko a) letran adierazitako arrazoiarengatik hasten baldin bada, beharrezkoa izanen da animalia-aren kontrol sanitarioa daraman albitariak txostena ematea.

4. Laguntza-txakurraren izaera eteteari buruzko erabakia artikuluko honen 2. idatz-zatian aipatutako pertsonari jakinaraziko zaie, bai eta Lotura Unitateen Erregistroari ere; izan ere, azken horrek etete-erabakiaren idatzoharra egin eta inskribatu eginen du.

5. Laguntza-txakurraren izaera eteteari buruzko erabakiak berarekin ekarriko du txakurraren txartel ofizial eta egiaztagiria aldi baterako kentzea.

6. Txakurraren erabiltzaileak, behin laguntza-txakurraren izaera galdu dela erabaki ondoren, ezin izanen da baliatu ingurunera animalia-aren laguntzarekin iristeko eskubideaz. Txakurra erabiltzen baldin badu eteteari buruzko erabakian ezarritakoaren aurka, erabiltzaileari erantzukizunak eskatzen ahalko zaizkio, 26.3.g) artikuluan ezarritakoaren arabera.

7. Laguntza-txakurraren izaera eteteari buruzko ebazpena eman zuen organo edo erakundeak ebazpen hori eraginik gabe utzi beharko du, honako baldintzak betetzen direnean:

a) Baldintza higieniko-sanitarioak betetzeari buruzko albitariaren egiaztagiria aurkeztu da, 1. idatz-zatiko a) letraren kasuan.

b) Erantzukizun zibilaren aseguru polizaren kopia aurkeztu da, 1. idatz-zatiko b) letraren kasuan.

c) Fede emateko moduan egiaztatu da etetea eragin duen egitate desagertu dela, 1. idatz-zatiko c) eta d) letraren kasuan.

8. Laguntza-txakurraren izaera eteteari buruzko ebazpena eraginik gabe uzteko ebazpena erabiltzaileari, jabeari eta Lotura Unitateen Erregistroari jakinaraziko zaie; azken horrek ebazpen horren idatzoharra eta inskripzioa gauzatuko ditu.

18. artikulua. Laguntza-txakurraren izaera galtzea.

1. Laguntza-txakurrak bere izaera galduko du honako arrazoi hauetako bat tarteko:

a) Erabiltzailearen hiltzea.

b) Animalia-aren heriotza, lanbidean diharduen albitari batek ziurtatua.

c) Animalia-aren behin betiko ezgaitasuna trebatuta izan zen eginkizunak betetzeko. Hori trebakuntza-zentroak emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatu beharko da.

d) Erabiltzaileak, edo haren aitak edo amak edo legezko tutoretza duen pertsonak, adingabeen edo legez ezgaitutako pertsonen kasuan, idatziz uko egitea. Uko egite hori laguntza-txakurraren izaera erabakitzeko organo eskudunari aurkeztuko zaio.

e) Foru lege honen 16. artikuluko arabera exijitzekoak diren baldintza higieniko-sanitarioak ez betetzea, lanbidean diharduen albitari baten txosten edo ziurtagiri baten bidez frogatuta.

f) Epai irmo bidez deklaratzeko kasuko laguntza-txakurra beste pertsona nahiz animalia batzuei kalteak eragin dizkien eraso baten egilea izan dela.

g) Lotura-unitatearen desegitea, trebakuntza-zentroak komunikatua.

h) Espediente administratiboa abiatu eta gero, behin betiko egiaztatuta geratzea erabiltzaileak txakurrari tratu txarrak eman dizkiola, Animalien Babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legearen arabera nahiz unean-unean aplikatzeko den arauaren arabera zehatzeko modukoak direnak.

2. Laguntza-txakurraren izaera galtzea izaera hori aitortu zuen eta haren egiaztagiria eman zuen organo beraren ebazpen administratiboaren bidez deklaratu beharko da, kasua bada kontradikziozko espediente administratiboaren instrukzioa egin ondoren; instrukzio horretan entzunaldia emanen zaie erabiltzaileari, jabeari eta Lotura Unitateen Erregistroari.

Laguntza-txakurraren izaera galtzeak berarekin ekarriko du, nahitaez, emandako egiaztagiria berariaz ezeztatzea.

3. Baldin eta baloratzen bada aurrez azaldutako arrazoietako bat aldi baterakoa dela, laguntza-txakurraren izaeraren behin-behineko etetea erabakiko da, gehienez ere sei hilabeterako, eta horretarako 17. artikuluan adierazitako prozedura beteko da. Epe hori iragaten bada eteterako arrazoia izan zen egoerari konponbidea eman gabe, laguntza-txakurraren izaera behin betiko galdu dela deklaratu da.

19. artikulua. Laguntza-txakurraren izaera ete-teko eta galtzeko erabakien eraginak.

1. Laguntza-txakurraren izaera eteteari buruzko ebazpen administratiboak berarekin ekarriko du laguntza-txakurraren txartel ofizial eta egiaztagiria aldi baterako kentzea.

Horren eraginez, txakurraren erabiltzailea, behin laguntza-txakurraren izaera galdu dela erabaki ondoren, ezin izanen da baliatu ingurunera animaliarekin batera iristeko eskubideaz.

2. Laguntza-txakurraren izaera galtzea xedatzen duen ebazpen administratiboak berarekin ekarriko du txartel ofiziala, erakusgarria eta erregistroko inskripzioa kentzea, bai eta foru lege honetan txakurraren beraren erabilpenarekin lotuta dagoen laguntza-txakurren erabiltzaileari aitortzen zaizkion eskubideak galtzea ere.

3. Aipatu berri diren 1. eta 2. idatz-zatietako ebazpenak berehala betetzekoak izanen dira; hori, halere, ez da eragozpen izanen haien aurka aurkez daitezkeen errekurtsoetarako.

20. artikulua. Dokumentazioa eskatzea.

1. Honakoak dira laguntza-txakurraren izaera egiaztatzen duen dokumentazioa eskatzeko baimenduta dauden pertsonak:

a) Une bakoitzean gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuko kontseilariak erabakitzen dituen funtzionarioak. Funtzionario horiek beren egiaztagiria eraman beharko dute.

b) Estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko agenteak, laguntza-txakurren erabiltzaileak iristeko gaitutako tokien, espazioen eta garraiobideen zaintzaren ardura dutenak.

c) Kasua bada, une bakoitzean erabiltzen ari den lokal, zerbitzu, establezimendu, instalazio edo espazioaren arduraduna.

2. Honakoak dira laguntza-txakurrak foru lege honetan ezarritako baldintza higieniko-sanitarioak eta aseguru-arlokoak betetzeari buruzko dokumentazioa eskatzeko baimena duten pertsonak:

a) Une bakoitzean gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuko kontseilariak erabakitzen dituen funtzionarioak. Funtzionario horiek beren egiaztagiria eraman beharko dute.

b) Estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko agenteak, laguntza-txakurren erabiltzaileak iristeko gaitutako tokien, espazioen eta garraiobideen zaintzaren ardura dutenak.

c) Toki-esparruan animalien osasunari buruzko arauen erantzukizuna duten pertsonak.

d) Kasua bada, une bakoitzean erabiltzen ari den lokal, zerbitzu, establezimendu, instalazio edo espazioaren arduraduna.

II. KAPITULUA

Erabiltzaileen eta laguntza-txakurren Lotura Unitateen Erregistroa

21. artikulua. Lotura Unitateen Erregistroa sortzea.

Gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuak erabiltzaileen eta laguntza-txakurren Lotura Unitateen Erregistroa sortuko du.

22. artikulua. Lotura Unitateen Erregistroaren edukia.

Honakoak izanen dira Lotura Unitateen Erregistroan gutxienez ere egonen diren datuak:

– Laguntza-txakurraren erabiltzailearen identifikazioa.

– Txakurraren jabearen eta, kasua bada, arduradunaren identifikazioa.

– Foru lege honen 4.7 artikulua aipatzen duen pertsonaren edo pertsonen identifikazioa.

– Txakurrari buruzko aipamen osoa (identifikazioa eta jatorria).

– Txakurrak laguntza-txakurra izateko eta, zehazki, erabiltzaileari lotuta egoteko, dauzkan gaitasunen eta trebetasunen aipamena.

– Erregelamendu bidez beharrezkotzat jotzen diren eta laguntza-eginkizunak hobeki garatzea bideratzen duten gainerako datuak.

III. KAPITULUA

Laguntza-txakurren gune zoologikoak eta trebakuntza zentroak

23. artikulua. Laguntza-txakurren gune zoologikoak eta trebakuntza zentroak ezarri eta funtzionatzeko baimenerako baldintzak.

Laguntza-txakurren gune zoologikoak eta trebakuntza zentroak ezarri eta funtzionatzeko baimena emateko, etxeko animalien aldi baterako mantentzerako instalazioak diren aldetik, jarduera sailkatuen eta ingurumen-baimenen arloko arau indardunetan ezarritako baldintzak ez ezik, Nafarroako gune zoologikoak baimentzeko, sailkatzeko, erregistratzeko eta kontrolatzeko araudi indardunetan ezarritako baldintzak ere bere beharko dira (azken horiek, gaur egun, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren apirilaren 12ko 104/2013 Foru Aginduan araututa daude).

IV. TITULUA Zehapen-arubidea

I. KAPITULUA Arau-haustek eta zehapenak

24. artikulua. Arau-haustek.

1. Arau-hauste administratiboa dira foru lege honetan xedatutakoak ez errespetatzea eta ez betetzea.

2. 1. idatz-zatian aipatutako arau-hauste administratiboak egitea titulu honetan xedatuaren araberaz zehatuko dira.

25. artikulua. Subjektu erantzuleak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako egiteak edo ez-egiteak zuzenean nahiz zeharka gauzatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak arau-hauste administratiboen arduradunak dira, haien egile gisa.

2. Honako pertsonak solidarioki erantzunen dute egindako arau-haustek direla eta:

a) Arau-haustea egiten laguntzen duten pertsona fisiko edo juridikoak, arau-haustea gerta zedin ezinbestekoa izan den egite edo ez-egite baten bitartez.

b) Jarduerak edo establezimenduak antolatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, kasuko lizentzien titularrak diren pertsonak edo, bidezkoa bada, zerbitzuaren titularrak den entitate publiko edo pribatuaren arduradunak, hirugarren pertsona batek foru lege honetan tipifikatutako arau-haustek egitea saihesteko betebeharra betetzen ez dutenean.

26. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

1. Foru lege honetan ageri diren arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

2. Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Foru lege honetan aitortutako eskubideen baliatzerako zailtasunak jartzea, haiek urratzera iritsi gabe.

b) Foru lege honek laguntza-txakurren erabiltzaile, jabe, trebatzaile eta sozializazio-agenteei ezartzen dizkien betebeharrak edozein ez betetzea.

c) Foru lege honen 23. artikulua laguntza-txakurren gune zoologikoetako eta laguntza-txakurren trebakuntza zentroetako titularrentzat ezartzen dituen betebeharrak ez betetzea.

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Laguntza-txakurren erabiltzaileak sartu, betetik bestera ibili edo gera daitezen eragozteko foru lege honen 5. artikuluan aipatutako toki, lokal, establezimendu, ostatu, garraiobide eta espazioetan, titulartasun pribatukoak bada, edo foru lege honen 8. artikulua aipatzen dituen erabilera kolektiboko toki, espazio edo instalazio pribatuetan.

b) Laguntza-txakurrekin sartzearen kontzeptuan diru-sarrera gehigarriak jasotzea, foru lege honen 4.5 artikuluan xedatutakoaren aurkakoak baita.

c) Iruzur egiteko asmoz, laguntza-txakurren identifikazio-erakusgarria erabiltzea halako egiaztagiririk ez duen txakur batentzat.

d) Iruzur egiteko asmoz, laguntza-txakur bat erabiltzea ez harekin lotura-unitatea osatzen duena, ez haren trebatzailea, ez haren sozializazio-agentea izan gabe.

e) Laguntza-txakurrari ez ematea foru lege honen xedatzen duen albaitaritza-arreta.

f) Erabiltzaileak laguntza-txakurrari edozein motatako tratu txarrak ematea.

Horren barrenean, honakoak sartzen dira: hitzezko tratu txarrak, hitzezko begirunerik gabeko tratua ematea, tratu txar fisikoak ematea eta txakurrarekin indarkeria erabiltzea, txakurrari kalte egin diezaioketen objektu edo tresnak erabiltzea, txakurrari kalte egin diezaioketen edozein kontrol edo atxikipen teknika erabiltzea, txakurraren beharrezan terapeutikoak, zainketakoak eta atsedenekoak ez errespetatzea gaixotasun edo lesio bat daukanean, eta adierazitakoen antzeko beste edozein jarduketak.

g) Laguntza-txakurra erabiltzea dagokion organo administratiboak erabiltzaileari jakinarazi ondoren laguntza-txakurraren izaera eten zaiola edo galdu duela.

h) Gutxienez ere urtean hiru aldiz 2. idatz-zatian arau-hauste arin gisa tipifikatutako jokabide edo ekintzak egitea.

4. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Laguntza-txakurren erabiltzaileak sartu, betetik bestera ibili edo gera daitezen saihesteko foru lege honen 5. artikuluan aipatutako toki, lokal, establezimendu, lojamendu, garraiobide eta espazioetan, titulartasun publikokoak bada.

b) Erabiltzaile bati nahita laguntza-txakurra kentzea, baldin eta egitate hori zigor arloko arau-hauste bat ez bada.

c) Gutxienez ere urtean hiru aldiz 3. idatz-zatian arau-hauste larri gisa tipifikatutako jokabide edo ekintzak egitea.

d) Laguntza-txakurraren erabiltzailea lan munda sartzeko eskubideak, foru lege honetako 6. artikuluan araututakoak, edonola urratzea.

27. artikulua. Zehapenak.

Foru lege honetan sailkatutako arau-hausteez zehapen hauek izanen dituzte:

a) Arau-hauste arinak, 300 eurotik 600 eurora bitarteko isunarekin.

b) Arau-hauste larriak, salbu eta foru lege honen 26.3.f) artikuluan tipifikatutakoa, 601 eta 3.000 euro bitarteko isunarekin.

Foru lege honen 26.3.f) artikuluan tipifikatutako arau-haustea zigortuko da, Animalien Babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legearen arabera dagokion –edo uanean-une hura ordeztzen duen arauaren arabera dagokion– isun-zehapenaz ez ezik, tratu txarrak jasan dituen txakurrekin sarbidea izateko eskubidea galtzeaz ere; eta txakur horrek, foru lege honetako 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, izaera hori galduko du.

c) Arau-hauste oso larriak, 3.001 eurotik 9.000 eurora bitarteko isunarekin.

28. artikulua. Zehapenen mailaketa.

1. Bidezkoak diren zehapenak erabakitzeke, proportzionaltasunaren printzipioa hartuko da kontuan, eta, bereziki, honako inguruabarrak dauden ala ez dauden:

a) Arau-hausleek nahita edo arduragabekeriaz jokatzeari.

b) Eragindako kalteen tamaina, bereziki erreparaturaz ezgaituaren duintasunari.

c) Berregitea, 2. idatz-zatian ezarritako moduan.

d) Zehatutako egitateen garrantzi soziala.

e) Eragindako arriskua.

f) Arau-hausleari exijitzekoa zaion dilijentzia, daukan eskarmentuaren eta bere lan-eginkizunei buruz daukan ezagutzaren arabera.

g) Aurrez errekerimendua egin izana.

h) Laguntza-txakurrari kalteak eragitea.

2. Artikulu honen 1. idatz-zatiko c) letran adierazitako eraginetarako, ulertuko da berregitea gertatu dela arau-haustea egiten den momentuan lehendik arau-hausleari zehapen bat ezarria zitzaienez, foru lege honen 26. artikuluan aurreikusi-

sitako izaera desberdineko edo izaera berdineko arau-hausteez egiteagatik, eta aurretik ezarritako zehapen hori preskribitu gabe dagoenean, foru lege honen 29.2 artikuluan xedatuari jarraituz.

29. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hauste administratiboak epe hauetan preskribituko dira:

a) Arinak, egin eta urtebeteko epean.

b) Larriak, egin eta bi urteko epean.

c) Oso larriak, egin eta hiru urteko epean.

2. Zehapena ezartzen duen ebazpen administratiboa irmoa izan eta urtebeteko epean preskribitzen dute ezarritako zehapenek.

30. artikulua. Erantzukizun zibila.

Foru lege honetan ezarritakoaren babesean zehapen bat ezartzeak ez du baztertzen arau-hausteez erantzukizun zibila izatea, ez eta zehapen administratiboaren xede izan den jokabidetik erator daitezkeen kalte eta galerengatik balizko kalte-ordaina jasotzea ere, legedi indardunari jarraituz.

II. KAPITULUA **Zehapen-prozedura**

31. artikulua. Zehapen-prozedura.

1. Lege honetan ezarritako arau hausteez direla-eta irekitzen diren espedienteen izapidetzeari eta ebazpenari dagokienez, bai eta haien beteazpenari dagokionez ere, zehapenatarako prozedura administratiboaren arloko lege indardunek ezartzen dutenari jarraituko zaio, hurrengo bi idatz-zatietan aipatutako salbuespenekin:

2. Espediente horien izapidetzea foru lege honen 3.3 artikuluan arabera zehapen-arloan eskuduna den departamentuko egitura organikoan eginkizun hori esleituta daukan organoak egin beharko du.

3. Behin zehapena ezartzeko espediente administratiboa irekita, eta ebazpen proposamena eman baino lehen, egindako arau-haustea bete behar den esparru zehatzi dagokion, hartu beharreko ebazpenerako nahitaezko txostenak –ez lotesleak– eskatuko zaizkie ingurumen baimenak ematearen arloan eta guneezkoak baimentzearen arloan eskudunak diren Nafarroako Gobernu departamentuei, bai eta jarduera sailkatuen arloan eskudunak diren toki entitateei ere.

4. Agintari eskudunak foru lege honen 3.3 artikuluan indarrez zehapen-espedienteak ebazten

dituenean, kontuan hartu eta ebaluatuko dira 2. idatz-zatiaren arabera emandako txostenak, nahiz eta zehapen-organoarentzat lotesleak ez izan.

Lehen xedapen gehigarria. Laguntza-txakurren identifikazioa.

Foru lege honen 15.2 artikulua laguntza-txakurrentzako zehazten duen identifikazioko txartel eta erakusgarriaren edukia gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuak erabakiko du.

Bigarren xedapen gehigarria. Laguntza-txakurren Lotura Unitateen Erregistroa

1. Laguntza-txakurren Lotura Unitateen Erregistroa sortzen da, gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunari atxikia. Erregistroa ez da eragozpen izanen txakurrak Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuari atxikitako txakurren erroldan ere egoteko.

2. Gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuak erregelamendu bidez ezarriko ditu laguntza-txakurren Lotura Unitateen Erregistroari buruzko arauak.

Hirugarren xedapen gehigarria. Laguntza-txakurraren zerbitzua behar duten pertsonentzako babes ekonomikoa

Nafarroako Gobernuak, gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunaren bitartez, babes ekonomikoa emanen die laguntza-txakurren erabiltzaileei, kasuko deialdietan ezartzen diren baldintzen arabera, lotura-unitateak sortzeko eta haiei eutsi eta jarraipena emateko, betiere aurrekontuko aurreikuspenen arabera.

Kasua bada, babes horrek arreta berezia eskainiko die txakur horien mantentze-gastuei eta foru lege honen arabera laguntza-txakurraren izaera lortu eta hari eusteko beharrezkoak diren jarduketan kostuei.

Laugarren xedapen gehigarria. Herritarrentzako zabalkunde eta sentsibilizazio kanpainak.

Nafarroako Gobernuak, gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunaren bitartez, informazio, zabalkunde eta hezkuntza kanpainak sustatuko ditu laguntza-txakurren erabiltzaileei dagokien guztian, bai eta foru lege honetan ezarritako eskubide eta betebeharrak dagokienez ere, herritarren sentsibilizatzeko, gizarteratzea benetakoa eta eraginkorra izan dadin.

Foru lege honen edukia ezagutzera emateko kanpaina hauek herritar guztiei zuzenduko zaizkie, eta, bereziki, maila guztietako irakaskuntza zentro-

ei, ostalaritza- eta merkataritza-zentroei, garraiobi-deei eta zerbitzu publikoei.

Bosgarren xedapen gehigarria. Laguntza-txakurren aitortzea beste autonomia erkidego batzuetan.

1. Laguntza-txakurren erabiltzaileek izaera hori beste autonomia erkidego batzuen administrazioak egiaztatuta daukatenean, Nafarroako Foru Komunitatera bizitzera baldin badatoz edo bertan, edozein inguruabar tarteko, aldi baterako geratzen badira, aipatutako eskubide berak izanen dituzte, eta aplikatzekoak izanen zaizkie foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan ezartzen diren betebeharrak, eskubide berak.

2. Laguntza-txakurren erabiltzaileek, txakurrak beste autonomia erkidego batean edo beste herrialde batean egiaztatuta dauzkatenak beren jatorriko tokiaren arauen arabera, beren legezko egoitza Nafarroako Foru Komunitatean ezartzen baldin badute, txakurrentzako egiaztapena eskuratu beharko dute, foru lege honetan ezartzen den prozeduraren arabera.

3. Nafarroako Foru Komunitatean egoiliarak izan eta laguntza-txakur bat beste autonomia erkidego edo herrialde batean eskuratzen dutenek 2. idatz-zatian ezarritako betebeharra izanen dute.

Seigarren xedapen gehigarria. Irisgarritasun unibertsala.

Foru lege honek laguntza-txakurren erabiltzaileentzat xedatzen duen irisgarritasun bermearen betetzea ulertuko da ezertan ere kendu gabe, eragin guztietarako, irisgarritasunaren arloan aplikatzeko den legediak unean-unean ezartzen duena.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Laguntza-txakurraren izaera eskuratu, eten eta galtzeko prozedurak.

Foru lege honen 14. 17. eta 18. artikuluetan ezarritako prozedurak izapidetu beharko dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen arabera eta Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera, betiere foru lege honek berezko dituen zehaztapenekin.

Lehen xedapen iragankorra. Apirilaren 4ko 7/1995 Foru Legeak aipatzen dituen gida txakurrak laguntza-txakur gisa aitortzea

1. Bai foru lege honetako 13.a) artikuluan, bai lkusmeneko disfuntzio osoa edo latza izanik, gida txakurren laguntza duten pertsonak gune irekietan eta mugatutako beste gunetan sartu, ibili eta ego-

teko askatasunaren erregimena arautzeari buruzko apirilaren 4ko 7/1995 Foru Legearen 2. artikuluan aipatzen diren txakurrei, automatikoki aitortuko zaie laguntza-txakurraren izaera.

Hala eta guztiz ere, foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, gida txakur horien erabiltzaileek eskatu beharko dute beren txakurren egiaztapena egokitzeko foru lege honetan ezartzen diren aitorten eta identifikazio baldintzen arabera.

2. Foru lege honek indarra hartzen duen unean dauden bestelako laguntza-txakurren jabe eta erabiltzaileek urtebeteko epea daukate legeak indarra hartzen duen unetik beren txakurren egiaztapena egokitzeko foru lege honetan ezartzen diren aitorten eta identifikazio baldintzen arabera.

Bigarren xedapen iragankorra. Udal-ordenantzak egokitzea.

Nafarroako toki entitateek, foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, beren ordenantzak egokitu beharko dituzte bertan jasotakoaren arabera.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe uzten da apirilaren 4ko 7/1995 Foru Legea, ikusmeneko disfunzio osoa edo latza izanik, gida txakurren laguntza duten pertsonak gunereketan eta mugatutako beste gunetan sartu, ibili eta egoteko askatasunaren erregimena arautzeari buruzkoa.

Azken xedapenetan lehena. Foru lege honen garapena, aplikazioa eta betetzea.

Ahalmena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuari bakoitzak bere eskumenen esparruan foru lege hau garatu, aplikatu eta betetzeko behar diren xedapenak eman ditzaten.

Azken xedapenetan bigarrena. Bestelako gaitasun eta laguntza-txakur motak.

1. Foru lege honen 1., 2.i), 2.m) eta 13.d) artikuluetan ezarritakoaren eraginetarako, ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuko gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunari laguntza-txakur bat erabili ahal izateko aukera justifikatzen duten beste gaitasun batzuk aitortzeko.

2. Halaber, ahalmena ematen zaio 1. idatzatian aipatutako departamentuari foru lege honen 13. artikuluan ezartzen diren laguntza-txakurren motak zabaltzeko, laguntza mota berrietarako trebakuntzak emaitza positiboak izan dituela jakiten denean.

Azken xedapenetan hirugarrena. Diru bidezko zehapenak eguneratzea.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan ezarritako diru-zehapenen zenbatekoak eguneratzeko.

Azken xedapenetan laugarrena. Foru lege honek indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako ikurren erabileran herritarren erabaki demokratikoa eta aniztasunarekiko errespetua bermatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2015eko urtarrilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea batzorde sustatzaile batek, zeinaren ordezkaria Eneko Compains Silva jauna baita, aurkeztutako Foru Lege proposamena, Nafarroako ikurren erabileran herritarren erabaki demokratikoa eta aniztasunarekiko errespetua bermatzekoa.

Proposamen hori 2014ko abenduaren 19ko 144. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan eskaintza publiko bat dei dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan lanpostuak hornitzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko urtarrilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan eskaintza publiko bat dei dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan lanpostuak hornitzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan eskaintza publiko bat dei dezan 2015aren hasieran, irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetan lanpostuak hornitzeko, erretiroak direla-eta sortutako lanpostu hutsen gutxienez ere % 50 eta lekualdatze-lehiaketa bidez sortutako guztiak beteko dituen".

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diru-laguntza bat ezar dezan, Obanosko Misterioaren antzeppenaren 50. urteurrena ospatzea ahalbidetuko duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko urtarrilaren 27an egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diru-laguntza bat ezar dezan, Obanosko Misterioaren antzeppenaren 50. urteurrena ospatzea ahalbidetuko duena".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du diru-laguntza bat ezar dezan, Obanosko Misterioaren antzeppenaren 50. urteurrena ospatzea ahalbidetuko duena, 2015ean zehar zenbait ekitaldi eginez.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Fundazioaren Patronatuaren parte aktibo izan dadin, Misterioa Donejakue Bideko ondare gisa babestu, ezagutarazi eta sustatzeko, eta antzeppen hori egin dadin Nafarroako Gobernuko Kultura departamentuko berriazko programa baten kargura edo "Cultur" programako ikuskizun bat izan dadin".

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kultura Kontseiluari buruzko araudi berri bat egin dezan eta kontseilu horren kideak berritu ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kultura Kontseiluari buruzko araudi berri bat egin dezan eta kontseilu horren kideak berritu ditzan"

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2015eko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2015eko urtarrilaren 9ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

2/2014 Foru Lege Dekretua, abenduaren 29koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen.

OSOKO BILKURAK BALIOZKOTUA

Nafarroako Parlamentuak, 2015eko urtarrilaren 27 egindako Osoko Bilkuran, baliozkotu zuen 2/2014 Foru Lege Dekretua, abenduaren 29koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen. Foru lege dekretu hori 2014ko abenduaren 31ko 254. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2015eko

urtarrilaren 16ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Osoko Bilkurak onetsi zuen, baita ere, foru lege proiektu gisa iza-pidetu dadin, presako prozeduraz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 161.6 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera